

Euskadiko gazteen erdiek baino gehiagok uste dute harreman sexualak izateko ez dela beharrezkoa maiteminduta egotea

Espainiako gazteek Euskadikoek baino neurri handiagoan lotzen dute sexua eta maitasuna


EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek gero eta gehiago diote sexualitatea oso garrantzitsua dela beraien bizitzetan. 2000 urtean gazteen % 24k zioten hori eta 2012an % 34k. Hori ez da harritzekoa kontuan izanik gazte gehienek iritziz (% 80) sexualitatea beharrezkoa dela norberaren orekarako.

Edozelan ere, gazteen erdiek baino gehiagok bereizten dituzte harreman sexualak eta maitasuna, hori horrela "harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar da" baieztapenaren kontra daude gazteen % 59.

Baieztapen horren kontra daudenek gehiengo osatu dute aztertutako talde guztietan. Hala ere, gai honetan aldeak daude nesken eta mutilen iritzien artean: mutilen % 23k uste dute harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela eta nesken kasuan % 36ra handitzen da portzentaje hori.

Harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela uste dutenak gero eta gutxiago dira adinean gora egin ahala: 20 urtetik azpikoen % 38 dira iritzi horretakoak, 20 eta 24 urte bitartekoen % 28, eta 25 eta 29 urte bitartekoen % 25.

Espainiako gazteek EAEkoek baino neurri handiagoan uste dute harreman sexualak izateko maiteminduta egon behar dela (% 37k eta % 29k, hurrenez hurren).



Azterketa hau egiteko, [Euskadiko gazteak 2012](#) izeneko ikerketaren emaitzetan oinarritu da [Gazteen Euskal Behatokia](#). Hortik ateratako datuak Espainiako Gazteriaren Institutuak (Injuve) 2010ean egindako ikerketatik ondorioztatutako emaitzekin alderatu ditu; "[Jóvenes y diversidad sexual](#)" da Injuveren ikerketa hori.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

